

2021  2026

LANEKO SEGURTASUN ETA  
OSASUNERAKO EUSKAL  
ESTRATEGIA



---

# 2023ko JARDUEREN MEMORIA

---



# 2023ko jardueren memoria



Barakaldo, 2024

Lan honen bibliografia-erregistroa Osalaneko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:  
[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de Osalan:  
[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of Osalan:  
[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

- Izenburua:** 2023ko jardueren memoria / Memoria de actividades 2023
- Argitalpena:** 1. edizioa, 2024ko ekaina
- Ale-kopurua:** 30 ale.
- Egilea:** OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
- ©** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.  
OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
- Argitaratzailea:** OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.  
Dinamita kalea, z.g. - 48903 Barakaldo (Bizkaia).
- Internet:** [www.osalan.euskadi.eus](http://www.osalan.euskadi.eus)
- Fotokomposizioa eta inprimaketa:** Fotocomposición IPAR, S. Coop.  
Zurbaran kalea, 2-4 behe. 48007 Bilbao (Bizkaia)
- Lege gordailua:** LG BI 00670-2024

# AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....	7
2. HITZAURREA .....	9
3. I. ARDATZA. KULTURA. LAP, EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURALA .....	11
1. HE. Gizarteak kontzientzia handiagoa hartzea laneko segurtasunari eta osasunari buruz, gai hori hobeto ezagutzea eta laneko arriskuei aurrea hartzean arduratsuago jokatzea. ....	11
2. HE. Autonomoen kolektiboak kontzientzia handiagoa hartzea LAPri dagokionez.....	15
4. II. ARDATZA. PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA.....	17
4. HE. Enpresek eta erakundeek laneko arriskuen prebentziorako kalitatezko eredia dute.....	17
5. HE. Lanari lotutako istripu eta gaixotasunen ondoriozko osasun-kalteak gutxiago dira .....	22
5. III. ardatza. GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEK GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN... ..	27
6. HE. Botere publikoek EAeko administrazioaren eskumenen barruan egiten dituzte legeak, gaur egungo araudia berrikusten dute, hobetu dadin sustatzen dute, hura betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen dute .....	27



7. HE.	Laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko ekintzak sartu dira gobernuaren eta egoki diren beste administrazio publiko batzuen politika guztietan.....	30
8. HE.	Laneko arriskuen prebentzioaren egungo ereduan txertatzea zaila duten lan-moduak dituzten kolektiboen (autonomoen, plataformen, etxean lan egiten dutenen) lan-baldintzak eta laneko segurtasun eta osasunerako sarbidea hobetzen dira.....	38
9. HE.	Ezagutza sortzea, laneko arriskuen prebentzioari lotutako pres-takuntza, ikerketa eta berrikuntza bultzatuz generoaren ikus-pegitik; horrela, aurrea hartuko zaie gizartean (zahartzea, lana antolatzeko beste aukera batzuk, globalizazioa), teknologian (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenean gertatzen diren aldaketei (klima-aldaketa).....	39
10. HE.	Informazio-sistema eta adierazle egokiak ezarri dira, datuen bilketa sistematikoa eta azterketa egiteko eta eragileei eta gizarteari horien berri emateko; horrela, osasunari lotutako prebentzioa eta babesa ezartzeko neurrien plangintza egin ahal izango da eta neurri horiek balioetsi ahal izango dira, betiere genero-ikuspegia eta beste gizarte-ezaugarri batzuk kontuan hartuz.....	47
12. HE.	Gizarte-eragileekin elkarrizketa sendotu eta finkatu da, pertsonak oinarritzat hartzen dituen eta gizarte-ezaugarriak sartzen dituen laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa-eredua lortze aldera.	48

# 1. AURKEZPENA

---



Lourdes Iscar Reina

OSALANen 2023ko Jardueren Memorian zehaztu ditugu Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren esparruan egindako ekintzak. Memorian zabal azaldu dira Euskal Autonomia Erkidegoan laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko eta laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzeko garatu diren ekimenak.

OSALANen oinarrizko helburu estrategikoetako bat herritarrak laneko segurtasunaren eta arriskuen prebentzioaren garrantziaz kontzientziatzea da. Horren harira, komunikabideetako presentzia aktiboa eta sare sozialen bidez herritarrekin komunikatzea lagungarriak izan dira laneko arriskuen prebentzioari buruzko kontzientzia handitzeko eta herritarrek eremu horretan duten konpromisoa indartzeko.

Gainera, OSALANek arreta berezia eskaini dio laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntzari, eta, bereziki zaindu du haurren, gazteen eta langile autonomoen hezkuntzan. Eduki espezifikoak lantzeaz gain, prestakuntza-saioak eman dira ikastetxeetan, unibertsitateetan eta lineako plataformetan. Herritarrek laneko arriskuen prebentzioaren arloan duten ezagutza eta parte-hartze maila neurtzeko egindako inkestek aukera eman dute ekintza horien inpaktua ebaluatzeko, baita ekimenak hautemandako beharren arabera egokitzeko ere.

Enpresen eta erakundeen arloan, OSALANek laneko arriskuen prebentzioaren kalitate-eredu baten garapena bultzatu du, prebentzioan inplikaturako eragileei beren eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar dituzten tresnak eman ahal izateko. Ekimen horiek lagundu dute prebentzio-kultura sustatzen eta lan-inguruen segurtasuna handitzen.

Laneko istripuek eta gaixotasunek osasunari eragindako kalteak murrizteari dagokionez, OSALANek landa-ekintza zuzenak egin ditu lantokietan istripuak eta gaixotasunak ikertzeko



eta aztertzeko. Herritarrekiko elkarreragina sustatzeko-postontzia kudeatu da kontsultei erantzuteko; eta enpresei eta langileei aholkularitza eman zaie laneko segurtasunaren arloan. Erakundeak ikerketa espezifikoak ere egin ditu, besteak beste, laneko minbiziaren, arrisku psikosozialen eta sektore espezifiko lan-istripuen prebentzioaren arloetan (adibidez, eraikuntzan edo basogintzan).

Bestalde, OSALANek nazioko eta nazioarteko hainbat erakunderekiko lankidetzan indartu du, laneko segurtasun eta osasuna sustatzeko. Aliantza estrategikoak ezarri dira hainbat eremutan. Eremu horietako batzuk herri-lanetako prebentzio-jardueren koordinazioa, normalizazioko batzorde teknikoetan parte hartzea eta laneko segurtasunaren arloko gobernuko erakundeekin eta nazioarteko erakundeekin lankidetzan jardutea izan dira.

Laburbilduz, OSALANen 2023ko jardueren memorian laneko segurtasuna eta osasuna sustatzeko ikuspegi integral eta proaktiboa azaldu dugu. Gainera, funtsezko alderdiak jorratu ditugu, hala nola kontzientziazio soziala, prestakuntza, prebentzioaren kalitatea, osasunerako kalteen murrizketa, erakundeen arteko lankidetzan eta ezagutzaren sorkuntza. 2023ko ekintzen helburua euskal gizartean prebentzioaren kultura indartzen laguntzea eta lan-baldintzak hobetzea izan da, lan-ingurune seguruagoak eta osasungarriagoak bermatzeko. Gainera, genero-ikuspegiak eta beste gizarte-baldintzatzaile batzuen inklusioak erakusten dute erakundeak konpromisoa duela lan-eremuko ekitatearekin eta jasangarritasunarekin. Lan horrek OSALANen posizionamendua indartu du, EAEko laneko segurtasuna eta osasuna sustatzeko gako-erakunde gisa.

*Lourdes Iscar Reina*

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde zuzendari nagusia



## 2. HITZAURREA

---

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzako administrazio-erakunde autonomoa da, Lan eta Enplegu Sailari atxikia. Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako jarduerak kudeatu, koordinatu eta sustatzeaz arduratzen da. Barakaldon zerbitzu nagusiak ditu, bai eta hiru lurralde-zentro ere. Zentro bakoitza bere dimentsioen eta jardueraren arabera antolatzen da, hainbat arlotan, ekoizpen-sektore hauek barne hartuta: eraikuntza, lehen sektorea, industria, zerbitzuak, laneko osasuneko unitatea eta administrazioa eta giza baliabideak. Horrez gain, prebentzio-diziplinei, zeharkako gaiei eta proiektu zehatzei lotutako lantaldeetan ere jardun du. 175 profesionalak lan handia egiten dute Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) langileen laneko segurtasuna eta osasuna zaintzeko, urtean 18 milioi euro inguruko aurrekontuarekin.

Hala, OSALANek 2023. urtean «2021-2026 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian» ezarritako hiru ardatzen eta helburuen arabera egituratu du bere jarduera.

I. ardatza Kulturari buruzkoa da, eta OSALANek lan egin du euskal gizarteari laneko arriskuen prebentzioak eta laneko segurtasunak duten garrantzia jakinarazteko. Horretan bereziki lagundu du nazioarteko biltzar bat antolatu izanak. Bertan, laneko arriskuen prebentzioko eragile nagusiak bildu dira, langileen segurtasuna eta osasuna hobetzeko indarrak bate-ratzeko. Era berean, komunikabideen, sare sozialen eta kontzientziazio-kanpainen bidez, OSALANek lortu du pertsona kopuru handiagoarekin komunikatzea. Publiko autonomoari zuzendutako mikrowebgune bat izan du, eta inkestak egin ditu herritarrek arlo horretan duten ezagutza eta parte-hartze maila neurtzeko.

Prebentzioaren kudeaketa sendoa eta kalitatezkoa deritzon II. ardatzari dagokionez, OSALANek prebentzioa indartzeko kalitate-eredu bat sustatu du enpresetan, genero-ikuspegiari eta antzeko alderdiei garrantzia emanda. Koordinazioa hobetzeko proiektuak



egin dira sektore espezifikoetan, hala nola eraikuntzan, osasun-jardueretan eta lehen sektorean. Gidak eta protokoloak landu dira laneko arriskuen prebentzioa hainbat arlotan optimizatzeko.

Gobernantzari buruzko III. ardatzari lotuta, OSALANek laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko baterako ekintzak egin ditu beste administrazio publiko batzuekin, laneko arriskuen prebentzioaren integrazioa hainbat eremutan indartuta. 2021-2026 aldiko Laneko Segurtasun eta Osasunaren EAEko Estrategiaren ezarpena zuzendu du, eta nazioko eta nazioarteko hainbat erakunderekin jardun du. Era berean, barneko prozesuak eta herritarrei zuzendutako prozesuak hobetzeko lana egin du.

Jarraian, OSALANek 2023ko Kudeaketa Planean egin dituen jarduerak azaldu ditugu, Laneko Segurtasuna eta Osasunaren EAEko Estrategian ezarritako helburu estrategikoen arabera ordenatuta.

# 3. I. ARDATZA. KULTURA. LAP, EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURALA

---

## 1. HE. Gizarteak kontzientzia handiagoa hartzea laneko segurtasunari eta osasunari buruz, gai hori hobeto ezagutzea eta laneko arriskuei aurrea hartzean arduratsuago jokatzea

---

Laneko arriskuen prebentzioa zer den dakien, betetzeko eskatzen duen eta konpromiso aktiboa duen biztanleriaren proportzioa handitu da. Horretarako, lagungarriak izan dira jardura hauek:

### Komunikabideak, webgunea eta gizarte-sareak

- Zuzendarien eta teknikarien bidez, OSALAN komunikabideetan egon da, hauek tarteko:
  - 39 elkarrizketa irratan, telebistan eta prentsan.
  - 23 prentsa-ohar.
  - 2 prentsaurreko.



- 7 erreportaje.
- 2 kanpaina.
- Kontzientziazio kanpainen bidez.
  - «OSALANen SUSTAPEN-BIDEO» berria egin dugu, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko Egunaren asteko kanpaina gisa.
  - Kontzientziazio-kanpaina: «LAN EGITEKO MODU BERRIAK ETA PREBENITU BEHARREKO ARRISKU-FAKTORE BERRIAK» Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Europako Astearen inguruan egin.
- OSALANek gizarte-sareetan egoten jarraitu du: Facebook sarean, OSALAN eta Itsaspreben YouTubeko kanaletan, LinkedIn-en eta X sarean. Horrez gain, OSALANen webgunean mikrowebgune espezifikoak daude oraindik ere.

**1. taula:** OSALANeko webguneko eta gizarte-sareetako trafikoaren gaineko datuak. 2023. urtea.

Ekitaldia	Saioak	Erabiltzaileak	YouTubeko Itsaspreben kanaleko erreproduzioen kopurua	YouTubeko OSALAN kanaleko erreproduzioen kopurua
2019	265.928	213.087	68.099	198.883
2020	668.194	343.794	38.798	351.420
2021	620.894	320.626	35.098	270.723
2022	207.450	331.854	26.755	350.752
2023	188.897	158.592	17.516	239.603

## Gizartearen parte-hartzea

Herritarrek argi eta garbi parte hartzen jarraitzen dute OSALANen sare sozialetan eta webgunean, eta 114 jarraitzaile berri jaso dira Twitter sarean.

OSALANek herritarrekin elkarrekintzan aritzeko web-postontzi bat dauka eta, horren bidez, eskaerak eta kontsultak bideratzen dira. 2023an, laneko segurtasunarekin eta lanarekin lotutako 501 kontsulta artatu dira.

## Prebentzio-kultura zabaltzea

2023an, OSALANek 13 argitalpen egin eta zabaldu ditu:

- Prebentzio-ordezkarien oinarritzko prestakuntza (2017) (USB) / Formación básica de delegados y delegadas de Prevención (2017) (USB).
- OSALANen argitalpenen ikus-katalogoa (2017-2022) / Catálogo visual de publicaciones de OSALAN (2017-2022).
- Lan-inguruan jatorri psikosozialeko gertaerak ikertzeko eskuliburua. OSALAN Metodologia / Manual para la investigación de sucesos de origen psicosocial en el entorno laboral. Metodología OSALAN.
- Adikzioei buruzko kanpaina eraikuntzaren sektorerako / Campaña sobre adicciones en el sector de la construcción.
- Hizkuntza inklusiboa erabiltzeko jarraibideak idatzizkoan eta ahozkoan OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak / Pautas para un uso inclusivo del lenguaje escrito y oral en OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
- 2023ko Kudeaketa Plana / Plan de gestión 2023.
- 2022ko Jardueren Memoria / Memoria de Actividades 2022.
- Gaixotasun profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2022ko Txostena / Enfermedades profesionales en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Informe 2022.
- Gaixotasun profesional susmoen jakinarazpenak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2022ko txostena. 2008-2022 eboluzioa / Comunicaciones de sospecha de enfermedad profesional en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Informe 2022. Evolución 2008-2022.
- Euskal Autonomia Erkidegoan lan-istripuak. 2022. Urteko txostena / Accidentes de trabajo en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Informe 2022.
- Lanean produktu kimikoekiko esposizioaren arriskua duten pertsonen osasunaren zaintza espezifikoaren protokolizatzea / Protocolización de la vigilancia específica de las personas con riesgo de exposición laboral a productos químicos.
- Landare-osasunerako produktuak segurtasunez erabiltzeko gida / Guía para la utilización segura de productos fitosanitarios: fichas para su aplicación práctica.
- Laneako osasuna eta segurtasuna: pertzepzioa gizartean (2023ko apirila) / Salud y seguridad en el trabajo: percepción de la sociedad (abril 2023).



## Prebentzio-kultura haur eta gazteentzat

Haur eta nerabeen kolektiboan zabalkunde eta prestakuntzako ahalegin handia egin da, etorkizuneko langileak direnez gero duten garrantziagatik:

- GAZTEPREBEN mikro-webgunea mantendu egin da. Bertan, laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako edukiak jasotzen dira, haurrei eta gazteei bereziki zuzenduta.
- Lanbide Heziketako ikasleen arteko dibulgazioa eta prestakuntza: ADI proiektuaren esparruan, Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioarekin lankidetzan garatu den horretan, lanbide-heziketako 15 ikastetxeko 651 gizonetako ikasleak eta 256 emakumezko ikasleak jaso dituzte prestakuntza-saioak.
- Gainera, Lanbide Heziketako ikastetxeetako 20 taldetako 165 ikasleak eta 138 ikasleak bisitatu dituzte OSALANen instalazioak, informazioa eta dibulgazio-materiala jasotzeko.
- Unibertsitate-arloan, UPV/EHUren udako ikastaroen barnean, OSALANen Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko XIII. ikastaroa antolatu dugu. Hauxe izan da ikastaroaren izenburua: «Lan-arriskuen prebentzioaren esparru juridikoa eta teknikoa eguneratzea», eta 10 hizlari (1 emakume eta 9 gizon) aritu dira. Ikastaroa 151 lagunek egin dute (78 emakume eta 73 gizon).

## Prebentzioaren kultura indartzea gizartearen

2023an bi inkesta egin dira, laneko arriskuen prebentzioaren arloan jakintza eta inplikazioa duten biztanleen proportzioa ezagutzeko (sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera berezita):

- Lehen inkesta herritarrei, oro har, zuzendu zaie, langile autonomoei zuzendutako item batzuk ere jasota, langileen kolektibo horren ezagutza zehatza izateko. Horrez gain, beste item batzuk jaso ziren, laneko arriskuen prebentzioaren genero-ikuspegia txertatzeko premiari buruzko ezagutza baloratzeko.
- Bigarren inkesta Lehen Hezkuntzako ikasleen populazio txiki bati zuzendu zitzaion, laneko arriskuen prebentzioari buruzko ezagutza haurren artean neurtzeko.

Bi inkesten emaitza apirilean aurkeztu zen Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Biltzarrean.

## 2. HE. Autonomoen kolektiboak kontzientzia handiagoa hartzea LAPri dagokionez

---

- Esan bezala, egindako lehen inkestan, herritar guztiei zuzendutako itemekin batera, langile autonomoei zuzendutako hainbat item ere bildu ziren, langile horiek laneko arriskuen prebentzioaren arloan duten ezagutza eta inplikazioa zehazteko.
- OSALANen webgunean jakintza-arloa sortu eta zaindu da, eta langile autonomoei zuzenduta dago. Kolektibo horrentzako Laneko Segurutasunari eta Osasunari buruzko informazio espezifiko biltzen du: betebeharrak, araudia, argitalpenak, prestakuntza, izapideak, etab.





# 4. II. ARDATZA. PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA

---

## 4. HE. Enpresek eta erakundeek laneko arriskuen prebentziorako kalitatezko eredia dute

---

OSALANek enpresetan lan-arriskuen prebentziorako jardueren kalitatea sustatzeko lan-lerro bat mantentzen du, eta, horretarako, agenteei –bereziki, enpresariei, prebentzioko ordezkariari eta prebentzio-erakundeetako langile tekniko eta sanitarioei– beren egitekoak egiteko erraztasunak ematen dizkieten tresnak garatzen ditu. Lan-ildo honetan sartzen diren ekimenak hauek dira:

### Genero-ikuspegia lan-arriskuen prebentzioan txertatzea

OSALANek laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko dibulgazioeko ekintzak eta materiala egiten ditu.

- Genero-ikuspegia txertatuta, laneko segurtasun eta osasunari buruzko edukiak sartu dira liburutegiak argitaratutako buletin guztietan eta 10 aldizkarietatik 6tan.
- Webguneko generoari buruzko ataleko edukiak eguneratzea.



- Genero-ikuspegian oinarritutako laneko segurtasun eta osasunari buruzko foro eta jardunaldietan parte hartzea:
  - *El enfoque de género en las actuaciones de OSALAN* (OSALANen jardueretan genero-ikuspegia txertatzea) hitzaldia, MC Mutual-ek «Rumbo hacia la integración de la perspectiva de género (Genero-ikuspegia txertatzerantz) izeneko jardunaldian. (Bartzelonan) (martxoaren 21ean).
  - OSALANen V. Biltzarreko Genero Mahaia antolatzea eta bertan parte hartzea (apirilaren 25ean).
  - OSALANen berdintasun-lanari buruzko erakusketa antolatzea Finlandiako ordezkarien bisitan (Laboral-TEK osasun-zentroan) (ekainaren 12an).
  - OSALANen berdintasun-lanari buruzko erakusketa Afa Insurance advisory Group of Resesarch and Development for municipal and county resarch Suediako ordezkarien bisitan (Barakaldon, irailean).
  - «Perspectiva de género en la PRL / Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan» hitzaldia ematea, ADIF enpresaren laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuaren jardunaldi teknikoetan (Toledon, azaroaren 14an).
  - «La influencia del género en la PRL y pautas para incorporar la perspectiva de género en la gestión preventiva» (Genero-ikuspegiak laneko arriskuen prebentzioan duen eragina; eta genero-ikuspegia prebentzio-kudeaketan txertatzeko gidalerroak) hitzaldia ematea, Serprecova-k (Valentziako Erkidegoko Prebentzio Zerbitzuen Elkarteak) antolatutako «La integración de la perspectiva de género en la PRL» (Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan txertatzea) jardunaldian (linean, azaroaren 29an).
  - Emakunde erakundeak antolatutako sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko prestakuntza-jardunaldia (abenduaren 15ean).

## Eraikuntza-sektoreko jarduerak koordinatzea

OSALANek proiektu bat egin du eraikuntza-sektoreko jardueren koordinazioa hobetzeko.

- 2023an, eraikuntza-sektoreko koordinazioaren egoerari buruzko diagnostikoaren emaitzak aurkeztu ziren OSALANen nazioarteko V. biltzarrean.
- Eraikuntza-sektoreko jarduerak koordinatzeko gida bat egiten laguntzen ari gara.
- Koordinazio-zerbitzuen kontratazio publikorako baldintza-agiriak aztertu ondoren, zerbitzu horien lizitazio publikorako baldintzak definitzeari ekin diogu.

## Arrisku psikosozialen prebentzioa

OSALANek lan egin du arrisku psikosozialen ebaluazioak egiten eta prebentzio-neurriak ezartzen lagunduko duten tresnak sortzeko, laneko arrisku horien eraginpean egoteagatik sor daitezkeen kalteak murrizte aldera.

- OSALANen webgune espezifikokoaren psikosozologiaren arloko edukiak eguneratzea: Psikopreben
- «Lan-Inguruan jatorri psikosozialeko gertaerak ikertzeko eskuliburua. OSALAN Metodologia» izeneko eskuliburua diseinatzea.
- 13 komunikazio egin dira, hainbat jardunalditarako.
- OSALANen Laneko Psikosozologiari buruzko XIII. jardunaldiak egin dira. Hona hemen izenburua: «Laneko ziberjazarpena», eta 151 lagunek parte hartu dute.

## Prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerak

- OSALANek prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueren kalitatea sustatzeko proiektu bat egin du, eta 2023an plangintza eta zaintza kolektiborako eta zaintza indibidua-lerako gomendioak biltzen dituen materiala landu du.
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalak egindako lanbide-gaixotasunen ikerketa-prozedurari buruzko prestakuntza eman zaie OSALANeko medikuei eta teknikariei, CEPROSS sisteman deklaraturako lanbide-gaixotasunen ikerketa-prozesuan EAEko Lan Ikuskaritzarekin batera aritzeko.
- Produktu kimikoen eraginpean dauden pertsonen osasunaren zaintzaren protokolizazioa argitaratu eta hedatu da.
- Laneko minbiziari buruzko ikerketa-lerroek jarraitu egin dute. Amiantoarekin lotu-tako tumoreei buruz ikertzen jarraitu da, batez ere, mesoteliomari buruz. Horrez gain, inkesta epidemiologikoak egin dira, sinu paranasaletako adenokartzinometan eta angiosarkoma hepatikoetan laneko esposizioarekin duten lotura ikusteko.
- Hedatzeko edo prestakuntzako materiala egin da, prestakuntza-pilula gisan, eta webean argitaratu da. Pilula (animazio-bideo labur) mota bi daude. Lehen multzoan biltzen dira osasuna, bizi-ohitura osasungarriak eta zaintzak sustatzeko pilulak, herritar guztiei zuzenduak. Bigarrenean, OSAKIDETZako lehen mailako arretako langileei eta beste osasun-langile batzuei zuzendutako lan-osasuneko jardueretan prestatzeko pilulak daude.



- Prestakuntza ematen zaie prebentzio-zerbitzuetako lan-osasunaren arloan lan egiten duten osasun-langileei, Osakidetzako osasun-langileei, barneko mediku egoiliarrei eta barneko erizain egoiliarrei. Erizaintzako ikasleei ere praktikak egiteko aukera ematen zaie.

## Laneko arriskuen prebentzioa lehen sektorean

«2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala» garatzen lankidetzan dihardu OSALANek. Egoera horretan, lehen sektoreko hainbat kanpaina egin dira.

- Baso-istripuak izan dituzten enpresak bisitatzeko kanpaina egin da, baso-jardueraren arriskuak murrizteko. 24 bisita egin dira baso-enpresetara; baita 7 landa-bisita ere.
- Hegazti-gripearekiko esposizioak eragindako arriskuen prebentzioari buruzko materiala eguneratzen lan egin da. Material hori berrikuspen-prozesuan dago, argitaratu aurretik.
- Arrantza-aparailuetan lan seguruko gida integratuak egitea: Legatza tretzaz arrantzatzeko maniobra eta lan seguruari buruzko gida; eta izozkailu-atunontziak erabiltzeko gutxienerako segurtasun-jarraibideen eta maniobren gaineko gida.
- «Kiratsaren ondoriozko istripuei aurrea hartzeko oinarrizko neurriak» izeneko dokumentua, eta upeltegietara banatzeko kartelak egitea.
- «Errematatzaile-lanak segurtasunez egiteko lan-prozesuen gaineko gida», baina oraindik orrazteko fasean dago.
- «Sasoiko landa-laneko prozesu seguruaren gida» argitaratzean dago. Horrez gain, infografia animatu bat egin da.
- SEGUMAR kanpainen parte hartu dugu, Lan Ikuskaritzak, Itsas Kapitaintzak eta Itsasoko Gizarte Institutuak proposatu dute. Bost itsasontzi bisitatu ditugu Gipuzkoan.
- «Ez irauli zure bizitza» kanpaina amaitu da. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin elkarlanean antolatu da, eta helburua traktoreak iraultzea-gatik istripuak prebenitzea zen.
- Euskadipreben uda-ikastaroaren hirugarren aldiaren parte hartu dugu: «Digitalización y Gestión avanzada del conocimiento para la generación de entornos 3S en la cadena de valor de la alimentación y la madera» (Ezagutzaren digitalizazioa eta kudeaketa aurreratua, elikaduraren eta egurraren balio-katean 3S inguruneak sortzeko).

## Agente kimikoen esposizioari lotutako arriskuen prebentzioa

OSALANek lan egin du agente kimikoen eraginpean egon daitezkeen pertsonen arriskuen ebaluaziorako tresna lagungarriak emateko, bai eta prebentzio-neurriak ezartzeko eta pertsonen osasuna babesteko ere.

- Azalaren bidez agente kimikoekiko esposizioari buruzko kanpainaren emaitzak ebaluatzeko azken txostena egin da.
- Produktu kimikoen eraginpean dauden pertsonen osasunaren zaintzaren protokolizazioa argitaratu eta hedatu da.
- Ihoberekin (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoarekin) lankidetzan aritu gara, udalek amiantodun instalazio eta kokalekuen erroldak egiteko metodologia bat prestatzeko, Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko 7/2022 Legearen 14. xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituta.

## Enpresan prebentziorako kalitatezko eredu bat aztertu eta garatzea

OSALANek 2023an enpresan kalitatezko prebentzio-eredu bat garatzeko lana egin du; horretarako, tamaina askotariko enpresen egungo ereduak aztertu dugu, eta Laneko Arriskuen Prebentzioan eragina duten faktoreak definitu ditugu.

## Laginak aztertzeako laborategia

Laneko arriskuen prebentzioko jardueren kalitatea enpresetan sustatze aldera, OSALANek laborategiko zerbitzuak eskaintzen ditu ingurumen-laginak aztertzeako. Zerbitzu horiek enpresei eta prebentzio-antolakundeak osatzen dituzten prebentzioko ordezkariari eta teknikariari emango dizkie, langileek lanpostuetan agente kimikoekiko duten esposizioa ebaluatzeko zereginetan laguntzeko.

### 2. taula: Analisi-zehaztapenak 2023. urtea.

Analisien zehaztapen kopurua	3.256
Analisien eskatzaile kopurua	9



## 5. HE. Lanari lotutako istripu eta gaixotasunen ondoriozko osasun- kalteak gutxiago dira

Helburu hori lortze aldera, OSALANek landa-ekintzak egin ditu lantokietan interesa duten pertsonekin zuzenean harremanetan jarrita, funtsezkoak baitira laneko segurtasunari eta osasunari buruzko ezagutza eguneroko lanean aplikatu behar dutenengana hel dadin. Hala, hona hemen OSALANek egindakoa 2023an:

- Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu diren lan-istripu hilgarriak, oso larriak, larriak eta anizkoitzak eta prebentzioaren ikuspegitik interesgarritzat jotzen diren istripu arinak aztertu eta ikertu ditugu. Istripu horien kausei eta faktoreei buruzko informazioa lortu dugu, eta dagozkion neurri zuzentzaileak proposatu ditugu.

**3. taula:** Ikertutako istripuak. 2023. urtea.

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Hilgarriak	Traumatikoak		4	4	8
	Ez-traumatikoak	2	7	2	11
	<i>In itinere</i>			5	5
	Misioan				0
Oso larriak/larriak	Traumatikoak	4	51	53	108
	Ez-traumatikoak		4	1	5
	<i>In itinere</i>		1	8	9
	Misioan			2	2
Arinak	Traumatikoak	2	7	14	23
Anizkunak	Traumatikoak			0	0
Sailkatu gabeak	Traumatikoak			1	1
Guztira		8	74	90	172
Istripu arinen jarraipenaren kopurua		1.105			

4. II. ARDATZA. PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA

- Era berean, beste kausa eta faktore erabakigarri batzuk ere aztertu ditugu, hauen inguruko informazioa jasotzeko: gaixotasun profesionalak, lanetik eratorri izan ahal diren gaixotasunak, gaixotasun profesionalen susmoen jakinarazpenak eta osasun-alertak. Horrez gain, gaixotasun horiek prebenitzeko azterketa egin da, bai eta bidezkoak diren zuzenketa-neurriak proposatu ere:

**4. taula:** Gaixotasun profesionalaren susmoaren jakinarazpenak lurraldeen eta jatorriaren arabera. 2023. urtea.

Jatorria	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE, guztira
Prebentzio-zerbitzuak	22	33	74	129
Osakidetzaren osasun-zerbitzuak	86	432	143	661
Guztira, EAE	108	465	217	790

**5. taula:** Patologia infekziosoa lan-inguruan: kasuak edo/eta agerraldiak. 2023. urtea.

Jasotako kasu edo agerraldi kopurua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Legionella	2	12	36	50
Q sukarra	3		1	4
Hazteria	4	30	25	59
Oxiuros			1	1
Tuberkulosia	1			1
Norobirusa			1	1

Esku-hartze kopurua	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Legionella	22	8	16	46
Q Sukarra	3	1	2	6
Hazteria	1		9	10
Oxiuros			1	1
Norobirusa			1	1



- Herritarrekin elkarrekintzan aritzeko postontzi bat kudeatu dugu; eta, horren bidez, eskaerak eta kontsultak bideratu dira. 2023an, laneko segurtasunarekin eta lanarekin lotutako 2.131 kontsulta artatu dira.
- Enpresek, langileek, herritarrek, haien ordezkariak eta prebentzio-erakundeek OSALANen eskumenei dagokienez laguntza teknikoa jasotzeko egiten dituzten eskaera guztiei erantzuna eta aholkularitza eskaini dizkie OSALANek. Guztira, 23 txosten tekniko igorri dira.
- Laneko segurtasunaren eta osasunaren gaineko aholkularitza eman du 1.200 lantokitan egindako bisitetan, lantokiak irekitzeko jakinarazpena jaso ondoren, lehen sektorean, industrian, zerbitzuetan eta eraikuntzan.
- Arrisku psikosozialen gaineko laguntza eta aholkularitza:
  - 19 eskabide edo errekerimendu teknikori erantzun zaie.
  - Dialnet fundazioari egindako 40 kontsulta erantzun dira.

**6. taula:** Ireki berri diren eta bisitatu diren lantokiak.  
2023. urtea.

Lurraldea	Lehen Sektorea	Industria	Zerbitzuak	Eraikuntza	Guztira
Araba	4	8		147	159
Bizkaia		76	5	345	426
Gipuzkoa	3	9	67	385	464
Guztira	7	93	72	877	1.049

- Amiantoaren esposiziopean egoteko aukerak dituzten langileen fitxategia kudeatzen eta mantentzen jarraitu da, lana utzi ostean osasunaren zaintza bermatzeko.



**7. taula:** Amiantoaren esposiziopean egon ahal izan diren langileen erregistroaren kudeaketa. 2023. urtea.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Sarrera berriak zerrendan	2.028	95	2.123
<b>Lan osteko zaintzaren izapideak</b>			
Programara gonbidatuak	878	53	931
Osakidetzaren Zaintza	515	30	545
Zaintza beste autonomia erkidego bazuetan	16	3	19
Kudeatutako erregistroak guztira	15.546	847	16.393

- Gainera, OSALANek alerta-sistema bat prestatu du, lesio larriagoak eta sarriagoak eragiten dituzten lan-istripuek eta lanbide-gaixotasunek osasunari eragindako kalteak ikertzeko eta esku hartzeko. 2023an, eraikuntzaren sektorean altueratik erortzeagatik gertatutako lan-istripuetan eta industriaren eta basogintzaren sektoreko makinatan harrapatzearen ondoriozko lanbide-gaixotasunetan jarri dugu arreta, bai eta sorbaldako lesioak eragiten dituzten lanbide-gaixotasunetan ere.

«Istripu eta gaixotasun errepikakorrak prebenitzeko fitxak» sortu ditugu, istripu horiek prebenitzeko, eta alerta-sistema bat zabaldu dugu webgunean: Hona hemen egindako fitxen ereduak:

- 1.2.Harrapaketak.
- 1.3. Rotaflex bidezko ebaketak.
- 2.1. Aldamioetatik erortzea.
- 2.2.Estalkietatik erortzea.
- 2.3. Eskailera mugikorretatik erortzea.
- 2.4. Eskailera finkoak.
- 2.5. Kamioitik erortzea, altueratik.
- 3.1. Makinak iraultzea.
- 5.1. Zuhaitzen erorketaren ondoriozko kolpeak edo harrapaketak.
- Erakundeko ikerketa-arloetan, eremu hauetako ikerketa-lerroei eutsi zaie:
  - Laneko minbizia: mesotelioma, sinu paranasalen minbizia eta angiosarkoma.



- Gaueko txandan lan egiten duten langileen bularretako minbiziaren osasuna zaintzeko jardunbide egokien gida burutu da.
- Osasuna sustatzeko programen dibulgazio-materiala egin da. OSALANen webgunean argitaratuko da, dibulgazio-pilula gisan:
  - Lan-denbora kudeatzeko pilula.
  - Txandakako lanen eta gaueko lanen pilula.
  - Elikaduraren eta lanaren gaineko pilula.
  - Enpresetan adina kudeatzeari buruzko pilula.
- Produktu kimikoen eraginpean dauden pertsonen osasunaren zaintzaren protokolizazioa argitaratu eta hedatu da.
- EAEko udaletako teknikariei amiantodun materialak kudeatzeko aholkularitza ematen jarraitu dugu. Horrez gain, Ihoberekin (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoarekin) lankidetzan aritu gara, udalek amiantodun instalazio eta kokalekuen erroldak egiteko metodologia bat prestatzeko, Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko 7/2022 Legearen 14. xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituta.
- Genero-inpaktuak lan-baldintzetan eta lanaren ondoriozko osasunaren narriaduran duen eraginari dagokionez, azterlan bat egin da migratzaileen lan-baldintzen, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen egoerari buruz, genero-ikuspegia aintzat hartuta; eta emakumeen eta gizonen laneko ezbehar-tasari eta gaixotasun profesionaleri buruzko txosten bat egin da, LBI Lan Baldintzei buruzko Inkestaren eta beste datu-iturri batzuen datu eguneratuak erabilia.

## 5. II. ARDATZA. GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEK GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN

---

6. HE. Botere publikoek EAEko administrazioaren eskumenen barruan egiten dituzte legeak, gaur egungo araudia berrikusten dute, hobetu dadin sustatzen dute, hura betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen dute

---

Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan eskumena duten administrazio eta agintarien-tzako koordinazio, aholkularitza eta laguntza teknikoaren esparruan, OSALANek jarduera hauek egin ditu 2023an:

- Ekainaren 20ko 90/2023 Dekretua argitaratu da, Euskal Autonomia Erkidegoko prebentzio-sisteman prebentzio-zerbitzuen jarduketa sanitarioei eta laneko medikuntzaren gaineko auditoretzak egiteari buruzkoa. Lan eta Enplegu Sailak eta Osasun Sailak egin dute dekretua.



- Laneko, osasuneko eta justiziako agintaritzen laguntza teknikoko eskariak eta laneko ikuskaritzarenak artatu ditugu.

**8. taula:** Lan-, osasun- eta justizia-agintariek laguntza teknikoa jasotzeko egindako eskaerak. 2023. urtea.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Jasotako errekerimendu kopurua	3	146	285	149
Egindako txosten kopurua	4	142	245	146
Epaiketetara joatea		15	5	20

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekiko lankidetzak, fabrikatzaileek, inportatzaileek eta merkaturatzaileek makinaren segurtasunari buruzko 2006/42/CE Zuzentaraua betetzen duten kontrolatzeko, horretarako dagoen protokoloari jarraituz.
- Lan Agintaritzarekiko koordinazioa egin da amiantoaren duten materialak kentzeko lanak kontrolatzeko.

**9. taula:** Amiantoaren duten materialak kentzeko lan-planen kontrola, Euskal Autonomia Erkidegoan aurkeztutako horien artean. 2023. urtea.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
<b>Aurkeztutako planak</b>				
Aurkeztutako planak, guztira	211	276	276	763
Planak aurkeztu dituzten enpresa kopurua	32	38	40	110
<b>Onartutako planak</b>				
Onartutako planak, guztira	186	253	266	705
<b>Eginiko bisitaldiak</b>				
Txostena egin aurreko bisitaldiak	9	9	31	49
Egiaztapen-bisitaldiak	52	15	16	83
Eginiko bisitaldiak, guztira	61	24	47	132
<b>Egindako txostenak</b>				
Egindako txostenak	298	369	421	1.088

5. II. ARDATZA. GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE LANEKO...

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan aritu gara, prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduera kontrolatzeko eginkizunak betetzeko, bai prebentzio-zerbitzu propioetan (PZP), bai kanpoko prebentzio-zerbitzuetan (KPZ). Hona hemen emaitzak:

**10. taula:** Eskumenak garatzea, prebentzio-zerbitzuen kontrolari eta baimen sanitarioari dagokienez. 2023. urtea.

Jarduera	PZP	KPZ	Guztira
<b>Instalazioak ezartzeko eta martxan jartzeko, aldatzeko, berritzeko, eta eteteko eta langileak aldatzeko osasun-baimena</b>			
Jasotako eskaeren kopurua	60	139	<b>199</b>
Egindako txostenak	58	98	<b>156</b>
Egindako errekerimenduak	5	26	<b>31</b>
<b>Ofiziozko jardunak: instalazioak baimendu, aldatu, berritu eta kentzeko nahiz langileak aldatzeko prozedurei buruzkoak</b>			
Hasita	30	80	<b>110</b>
Egindako txostenak	33	90	<b>123</b>
Egindako errekerimenduak	25	95	<b>120</b>

Jarduera	PZP	KPZ	Guztira
<b>Lankidetzazko edo azpikontratazio-espedituek</b>			
Laguntza-eskabidea			<b>0</b>
Egindako txostenak			<b>0</b>
Egindako errekerimenduak		2	<b>2</b>
Azpi-kontrataziorako eskaerak	4		<b>4</b>
Egindako txostenak	4		<b>4</b>
Egindako errekerimenduak	2		<b>2</b>
<b>Farmazia-prestazioa</b>			
Izapidetutako eskaerak	29		<b>29</b>
<b>Auditoretzak</b>			
Jasotako eskaeren kopurua		1	<b>1</b>
Egindako txostenak		1	<b>1</b>



- Lan-agintaritzak eskatuta, kanpoko prebentzio-zerbitzuek egiaztapen-baldintzak betetzen dituzten kontrolatu dugu eta prebentzio-zerbitzu mankomunatuak eratu ditugu.
- OSALANen laneko osasun-unitatearen eskumenen esparruari buruz jaso diren salaketei erantzun diegu, osasun-agintaritzza baitagokio prebentzio-zerbitzuetan.

**11. taula:** OSALANek jasotako salaketak.  
2023. urtea.

Salaketak, osasun-agintaritzza	20
Txostenak	20

## 7. HE. Laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko ekintzak sartu dira gobernuaren eta egoki diren beste administrazio publiko batzuen politika guztietan

Laneko Segurtasuna eta Osasuna hobetzeko beste administrazio publiko batzuekin batera egingdako jarduketei dagokienez, OSALANek jarduera hauek egin ditu 2023an:

- Organo eskudunekin (Lan eta Meatze sailtako agintariekin, Foru Aldundiekin, inplikaturako enpresa publikoekin, Lan Ikuskaritzarekin eta OSALANekin) koordinatu gara, Laneko Arriskuen Prebentzioa obra publikoan eta azpiegitura handien obretan txertatzea indartzeko.
- Obra publikoko eta azpiegitura handietako laneko arriskuen prebentzioaren jarraipen-batzordeak sei bilera egin ditu; eta, horien ondorioz, 49 bisita egin dira obretara.
- 2023an OSALANek liderra izaten jarraitu du «2021-2026rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia» prestatzeko prozesuan. 2022-2023 Ekintza Planaren jarraipena egin da.
- UPV/EHU-Osalan María Isabel Bilbao Bengoechea Laneko Medikuntza eta Erizaintzako Katedra sortu da. Katedra horren helburuak Laneko Medikuntza eta Erizaintza unibertsitate-esparrura eraman ahal izatea eta graduko ikasleen artean prebentzio-kultura sustatzea dira.

## 5. II. ARDATZA. GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE LANEKO...

Horri dagokionez, katedrak laneko osasunaren kultura gizartean eta erakundeetan zabaltzeko eta dinamizatzeko agente-lanak beteko ditu, baita laneko arriskuen prebentzioan parte hartzen duten eragileen sareari aholkularitza eta laguntza emateko eginkizunak ere. Horrela, katedrak unibertsitatearen eremu akademikotik ezagutza aditua kanpora eramateko konexio-eragile bat izan beharri erantzun dio.

- Emakunderekin lankidetzan jarraitu dugu, baterako ekintzak egiteko, laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatze aldera.
  - Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko materiala sortu da.
  - Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko prestakuntza-jardunaldi batean parte hartu da.
  - Gizonduz-ek bultzatutako ekimen batean parte hartu dugu. OSALANeko langileei prestakuntza eman zaie sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz.
  - Enpresen eta langileen kontsulterei erantzuteko koordinazioari eutsi zaio.
- OSALANek «2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala» (EUSKADIPREBEN) garatzen parte hartu du, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin batera (nekazaritza, arrantza eta elikadura-politikaren arloa eta portuen arloa) eta hiru foru-aldundiekin batera, Euskadiprebeneko erakundearteko batzordean.

## Europar

**SAF€RA:** Euskal enpresek parte hartuko duten industria-segurtasuneko ikerketa-proiektuak finantzatzea, hazkunde jasangarri eta adimentsua lortzeko; horrela, aukera emango zaie prebentzioaren bidez nazioartekotzeko

Europako MODERNET sarea: Monitoring trends in Occupational Diseases and tracing new and Emerging Risks in a NETWORK deritzon sareak osasunaren arloko langileei lankidetzan aritzeko aukera ematen die, laneko gaixotasunak eta arrisku berriak zaintzeko.



## Estatuko eremua

- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren osoko bilkuretan parte hartu dugu, bai eta organo horren barruan sortutako batzorde eta lantaldeetan ere:

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde nazionalako osoko bilkura.
Lantaldea: 2023-2027ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Espainiako Estrategia.
Lantaldea: Suteen prebentzioa eta itzalketa.
Lantaldea: Amianto.
Lantaldea: Eraikuntza. – Altueran egindako aldi baterako lanen azpi-lantaldea.
Lantaldea: Baliomugak.
Lantaldea: Nekazaritza-sektorea: – Laneko azpitaldea: Nekazaritzako makinak. – Laneko azpitaldea: Baso-lanetako jardunbide egokiak.
Lantaldea: Nahasmendu muskuluesketikoak.
Lantaldea: Laneko bide-segurtasuna.
Lantaldea: Arrisku psikosozialak.
Lantaldea: Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa eta prestakuntza.
Lantaldea: Itsas arrantzaren sektoreko lantaldea: – Laneko azpitaldea: Itsas eta arrantza sektoreko babes ekipamendua
Lantaldea: Silize-hauts arnasgarria.



5. II. ARDATZA. GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE LANEKO...

- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin lankidetzan aritu gara, talde hauetan:

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Espainiako sarea.
Lanbide-esposizioaren mugak.
Lan-istripuek eragindako heriotzen tasa.
Agente fisikoak.
Ikertutako lan-istripuak (BINVAC).
Agente kimikoekiko esposizio-egoerak (BASEQUIM).
Makinek sortutako laneko egoera arriskutsuak (BASEMAQ).
PREVENCION 10.es aholkularitza publikorako sistema.
Gaixotasun profesionalak ikertzea.
Minbizia sortzen duten agenteak.
Enpresa Osasungarrien Espainiako Sareko Egiatzapen Batzorde Teknikoa.
RERA kudeaketarako tresna informatiko bat eta amiantoarekin lotutako beste datu batzuk garatzea.
Nekazaritzako eta basogintzako makineriarekin eta traktoreekin lotutako istripuak aztertzea.
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren (LSOIN) eta autonomia-erkidegoen gaixotasun profesionalen buruzko lantaldea. Elkarreragingarritasun-plataforma gaixotasun profesionaletan.

- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Lurralde arteko Sarearekin lankidetzan aritu gara, talde hauetan:

Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia integratzea.
Arrisku psikosozialen ebaluazioa.
Amiantoa.
Prestakuntza- eta zabalkunde-jarduerak.
Prebentzio Zerbitzuetako kalitate-irizpideak.



- UNEren Normalizazioko Batzorde Teknikoetan (NBT)-Normalizazioko Espainiako Elkartearen parte hartu dugu:

81 AEN/NBT: Laneko segurtasuna eta osasuna: Laneko babes kolektiborako bitartekoak:

- 6. lantaldea: Segurtasun-sareak forjaketapean.
- 4. lantaldea: Ertza babesteko behin-behineko sistemak.
- 2. lantaldea: Segurtasun-sareak eta euskarriak.

81 AEN/NBT: Laneko segurtasuna eta osasuna: Agente kimikoek eragindako arriskuen ebaluazioa.

311 AEN/NBT: Entretanimenduaren industria.

180 AEN/NBT: Obretako aldi baterako lanetarako ekipamendua.

- 2. lantaldea: Enkofratuak.
- 4. lantaldea: Zamaketa-lanetarako araudia.

171 NBT: Giro-kalitatea barnealdeetan. Balorazioa egiteko analisiak eta auditoriak .

- ISO-Normalizaziorako Nazioarteko Erakundearekin lankidetzan aritu gara:

ISO 283 Batzorde teknikoa 5. lantaldea: Gaixotasun infekziosoak prebenitzeko jarraibideak.

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea, ekintzak koordinatzeko:

Araua garatzen lankidetzan aritzeko taldea.

Gaixotasun kutsagarrien, klusterren eta txertoen arloko lankidetzat-taldea.

Informazio-sistemen koordinaziorako lankidetzat-taldea.

Osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko jarduerak koordinatzeko taldea.

Lanaren eraginezko minbizia aztertze koordinazio-taldea.

## OSALANek beste arlo batzuetan, nagusiki, lankidetzaz-jarduera hauek egin ditu

Laneko Arriskuen Prebentzioarako Fundazioaren Patronatua.
Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluko Osasun Publikorako Batzordearen laneko osasunari buruzko txostena.
CANO taldean parte hartzea, Galiziako, Asturiasko eta Kantabriako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutuekin batera.
Herri Lanetarako Erakunde arteko Batzordea eta Herri Lanetarako Lurralde Batzordeak.
Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua.
Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzuen Zuzendaritzako Kontseilua.
Euskal Autonomia Erkidegoko Sasoiko Lanari buruzko erakundearteko mahaia.
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde iraunkorra.
SEGUERBIDE, enpresak eta prebentzio-zerbitzuak bideko lan-istripuen inguruan sensibilizatzeko ikerketa-proiektua. Trafiko Zuzendaritzak parte hartzen du.
Amiantoa kentzeko lan-planetan adostutako irizpideak ezartzeko lantaldea: OSALANek, Lan Zuzendaritzak eta Lan Ikuskaritzak parte hartzen dute.
Eusko Jaurlaritzaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.
Eusko Jaurlaritzaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordeko talde teknikoa.
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekiko hitzarmenaren Jarraipen Batzordeko taldea.
EAEko sektore publikoaren jasagarritasun energetikoaren batzordea.
Adikzioen Euskal Kontseilua.
Sasoikako Lanari buruzko Erakundearteko Mahaia.
ASEAMAC Asociación de alquiler de maquinaria y equipos elkartearikiko lankidetzaz.



Gaixotasun profesionalaren susmoaren jarraipen-batzordea, Ikuskaritza Medikoekin, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateekin eta Osakidetzarekin batera.

Baterako jarduketak egitea, amiantoan lanean erabiltzearen ondoriozko patologiek eragindako langileei dagokienez. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, OSAKIDETZA-Euskal Osasun Zerbitzuaren eta OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen artean egin dira.

Lan Medikuntzaren Euskal Elkarte, Bilboko Mediku Zientzien Akademia eta OSALANen arteko lankidetzak, prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileen prestakuntza plana bultzatzeko aliantza estrategikoa.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin lankidetzan aritu gara, lan-istripuagatiko eta lanbide-gaixotasunagatiko aintzatespen- eta konpentsazio-eskumenak gauzatzeko; horretarako, kide titular gisa joan gara Ezintasunak Balioesteko Taldeen bileretara:

**12. taula:** Ezintasunak Balioesteko Taldeekin egindako bilerak.  
2023. urtea.

Ebaluazio-bilerak	24
Kasu ebaluatuak	116

OSALANek bere barne-prozesuak eta herritarrei zuzendutako zerbitzuak hobetzeko lanean jarraitu du, 2023ean egindako jarduerak honekin:

- 2022. urteko jardueren memoria eta 2023ko kudeaketa-plana egin eta hedatu ditugu.
- OSALANeko artxibo eta agirien kudeaketa EAEko administrazio orokor eta instituzionaleko artxibo eta kudeaketako sistemara egokitu dugu.
- Hauxe izan da OSALANen 2023ko aurrekontu-betearazpena:

**13. taula:** Gastuak eta sarrerak.  
2023. urtea.

Gastuak (milako €)	
Langileen gastuak	10.532,72
Funtzionamendu-gastuak	2.579,95
Finantza-gastuak	0,02
Transferentziak eta dirulaguntzak. Gastu arruntak	1.428,22
Gauzatutako inbertsioak	283,91
Finantza-aktiboen igoera	12
<b>Guztira</b>	<b>14.836,82</b>

\* Aurrekontuaren betearazpenari buruzko informazio osoa orri honetan dago:  
<https://www.euskadi.eus/osalan-eko-aurrekontuaren-betearaztea-2023/web01-a3ogaoce/eu/>

- OSALANen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2022ko Plana ebaluatzea eta 2022-2024 II. Berdintasun Plana sustatzea eta haren jarraipena egitea.
- OSALANen Euskararen erabilera normalizatzeko Planaren ebaluazioa (VI. plangintza-aldia, 2018-2022); eta OSALANen Euskararen erabilera normalizatzeko Plana egitea (VI. plangintza-aldia 2023-2027).
- Datu pertsonalak babesteko politikaren, informazio-sistemen eta agiriaren kudeaketaren ezarpena garatu dugu.
- Arau, kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenen jarraipen juridikoa egin da.



## 8. HE. Laneko arriskuen prebentzioaren egungo eremuan txertatzea zaila duten lan-moduak dituzten kolektiboen (autonomoen, plataformen, etxean lan egiten dutenen) lan-baldintzak eta laneko segurtasun eta osasunerako sarbidea hobetzen dira

2023. urtean, OSALANek dirulaguntza-lerroa izaten jarraitu du, langile autonomoen prestakuntza sustatzeko, kolektibo honetako elkarte profesionali eta irabazi asmorik gabeko erakundeei zuzenduta. Era berean, kolektibo horri zuzendutako laneko arriskuen prebentzioari buruzko lineako ikastaroari eutsi zaio. Ikastaro horrek 4 edizio izan ditu, honela banatuta:

Argitalpena	Data
1. edizioa	apirilaren 3tik maiatzaren 31ra
2. edizioa	ekainaren 5etik uztailaren 31ra arte
3. edizioa	urriaren 2tik azaroaren 30era
4. edizioa	abenduaren 4tik urtarrilaren 31ra

### 14. taula: Langile autonomo trebatuak. 2023. urtea.

Langile autonomo trebatuek osatutako kopurua	114
Langile autonomoentzako lineako ikastaroaren moduluak	4

## 9. HE. Ezagutza sortzea, laneko arriskuen prebentzioari lotutako prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza bultzatuz generoaren ikuspegitik; horrela, aurrea hartuko zaie gizartean (zahartzea, lana antolatzeke beste aukera batzuk, globalizazioa), teknologian (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenen gertatzen diren aldaketei (klimatek)

---

OSALANek prestakuntza-jarduerak antolatzen, garatzen eta diruz laguntzen ditu; horrela, prebentzioaz arduratzen diren eragile nagusiek, bai enpresetan, bai prebentzio-zerbitzuetan, laneko arriskuak prebenitzeko eta saihesteko prestakuntza handiagoa izango dute. Nabarmenezkoa da prestakuntza, sindikatu eta prebentzio-ordezkariekiko lankidetzan, horiek baitira Laneko Arriskuen Prebentzioko eragile nagusiak enpresetan. Prebentzio-zerbitzuetako teknikariei eta osasun-langileei prestakuntza eguneratua ere ematen die. Prebentzioaren arloko etorkizuneko osasun-langileak hartzen ditu praktikan. Eta langile autonomoentzako prestakuntza antolatzen du, langile horien errealitatea aintzat hartzen duten azken arauak betez.

- 2023ko aste batean laneko segurtasuna eta osasuna sustatu ziren, Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Munduko Egunaren inguruan (apirilaren 28an). OSALANen V. Nazioarteko Biltzarra apirilaren 24an eta 25ean egin zen, sortu zeneko 30. urteurrena ospatzeko. Geroago, ORP Fundazioaren nazioarteko biltzarra egin zen.

OSALANen V. Nazioarteko Biltzarraren leloa «erronkak onartuz, ahaleginak batuz» izan zen, eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan inplikaturako eragile guztien integrazioa beharrezkoa dela antzematea izan zuen helburu, langile seguru eta osasuntsuak izateko.

130 hizlari baino gehiago izan ziren, laneko arriskuen prebentzioaren eta industria-segurtasunaren arloko maila goreneko profesionalak, bai Estatukoak, bai nazioartekoak, 600 parte-hartzaile baino gehiago; horietatik % 49,7 emakumeak izan ziren, eta % 50,3 gizonak. 48 erakusketariak egon ziren.

### Tailerrak, ikastaroak eta jardunaldi teknikoak eta dibulgazioak

- Erakunde eta instituzioekin lankidetzan, OSALANen dibulgazio-lana hainbat hitzaldi eta aurkezpenetan erakutsi da; horrez gain, 27 jardunaldi tekniko eta dibulgaziozko antolatu ditu, askotariko kolektiboetara zuzenduta.



Ekitaldia	Antolatzailea	Data	Lekua
Laneko arriskuen prebentziorako APD topaketa-zikloa. Amiantoa enpresetan kudeatzea: identifikazioa (ez) egitea eta osasuneko eragina	APD Euskadi	Martxoaren 16an	Donostian
Dibulgazio Jardunaldia: Laneko arriskuen prebentzioran genero-ikuspegia integratzea	MC Mutual	Martxoaren 21ean	MC MUTUAL
Jardunaldi teknikoa: Lantokietan agente kimikoak ebaluatzeko eta prebenitzeko gida tekniko eguneratuaren aurkezpena	INSST	Apirilaren 20an	Bartzelonan
ORP 2023 Nazioarteko Biltzarra: At work: one life, one planet	ORP Nazioarteko Fundazioa	Apirilaren 26tik 28ra	Bilbon
Lan-Inguruan jatorri psikosozialeko gertaerak ikertzeari buruzko jardunaldia	UGT Euskadi	Apirilaren 28an	Bilbon
Enpresa osasungarrirako tailerra: emozioa eta gorputza	SEA	Maiatzaren 17an	Vitoria-Gasteizen
Lesio muskuloesketikoen prebentziorari eta errehabilitaziorari buruzko jardunaldiak	Athlon	Maiatzaren 18an eta 19an	Vitoria-Gasteiz
Zaratarekiko lan-esposizioari buruzko jardunaldi teknikoa: gida teknikoa eta osasun-zaintzako protokoloa eguneratzea	Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutua	Maiatzaren 23an	Madriren
Laneko arriskuen prebentziorako APD topaketa-zikloa: Osasunak erakundeetan duen eragina: estrategiatik emaitzetara	APD Euskadi	Maiatzaren 25ean	Vitoria-Gasteizen
REES Enpresa osasungarrien Espainiako Sarearen VIII. Topaketa irekia	INSST, ISSGA	Ekainaren 9an	Ourensen



5. II. ARDATZA. GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE LANEKO...

Ekitaldia	Antolatzailea	Data	Lekua
Akreditazioak banatzea: zero istripuko enpresa ( <i>empresa cero accidentes</i> )	Fraternidad-Muprespa	Ekainaren 14an	Donostian
Laneko istripuak itsasoan prebenitzeari buruzko jardunaldia	IAPRL	Ekainaren 21ean	Oviedon
Akreditazioak banatzea: zero istripuko enpresa ( <i>empresa cero accidentes</i> )	Fraternidad-Muprespa	Ekainaren 30ean	Bilbon
Topaketa teknologikoa: segurtasun industrialaren makinetan	Miguel Altuna LH	Uztailaren 13an	Bergaran (Gipuzkoan)
«Digitalización y Gestión avanzada del conocimiento para la generación de entornos 3S en la cadena de valor de la alimentación y la madera» (Ezagutzaren digitalizazioa eta kudeaketa aurreratua, elikaduraren eta egurraren balio-katean 3S inguruneak sortzeko).	EuskadiPreben	Uztailaren 20an	Donostian
Zaratarekiko lan-esposizioari buruzko jardunaldi teknikoa: gida teknikoa eta osasun-zaintzako protokoloa eguneratzea	ICASST	Urriaren 17an	Santanderren
Enpresa osasungarrirako tailerra: emozioen ongizatea eta gorputza	SEA	Urriaren 19an	Guardian
Oñatiko 2019ko Adierazpena bultzatzeko III. Jardunaldiak. Elkarrizketa soziala eta lan-politikak adostea, aldaketa-tresna gisa	IISJ	Urriaren 23an	Bilbon
Laneko arriskuen prebentziorako APD topaketa-zikloa«Osasunak erakundeetan duen eragina: estrategiatik emaitzetara»	APD Euskadi	Urriaren 26an	Bilbon



Ekitaldia	Antolatzailea	Data	Lekua
Web-mintegia: Amianto-errola dagoeneko egin duzu zure udalerrian?	Bureau Veritas	Urriaren 26a	Linean
<i>Manufacturing congress</i> : «EBren markak arautzeko lege-esparru berria»	AFM Cluster	Urriaren 26an	Donostian
Sentsibilizazio-jardunaldia: «Pertsona guztientzako prebentzio-kultura»	<i>El Correo</i>	Urriaren 27an	Bilbon
San Prudentzio Fundazioaren XXIII. biltzara, Laneko segurtasun eta osasunari buruzkoa: «Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legearen etorkizuna; TME eta faktore psikosozialak»	San Prudentzio Fundazioa	Azaroaren 9an	Vitoria-Gasteizen
ADIF enpresak antolatutako barne-prestakuntza	ADIF	Azaroaren 14an	Toledon
Laneko indarkeriari eta lan-jazarpenari buruzko jardunaldi teknikoa	UGT Euskadi	Azaroaren 15ean	Bilbon
Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspuntua integratzeko jarraibideak.	Serprecova	Azaroaren 29an	Linean
Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako enpresa-protokoloen testuingurua eta berrikuntzak	Emakunde	Abenduaren 15ean	Bilbon eta linean

- Era berean, OSALANek tailer, ikastaro eta jardunaldi tekniko eta dibulgaziozko hauek antolatu ditu, eta horietan laneko arriskuen prebentzioko profesionalak parte hartu dute, eta hainbat gai landu dituzte:

**15. taula:** OSALANek antolatutako tailerrak, ikastaroak eta jardunaldi teknikoak eta dibulgaziozkoak. 2023.

<ul style="list-style-type: none"><li>• Urtarrilaren 25ean laneko arriskuen prebentzioari buruzko sentsibilizazio-kanpainaren azken jardunaldia egin zen, traktoreen irauketaari buruz: «Ez irauli zure bizitza».</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Martxoaren 9an, jardunaldi bat antolatu zen langile autonomoentzako laneko arriskuen prebentzioari buruzko lineako ikastaroa aurkezteko eta ezagutarazteko.</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Martxoaren 20an, prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza-tailer berria egin zen: «Telelana: kontzeptua, arriskuak eta prebentzio-zerbitzuen kudeaketa».</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• 2023ko apirilaren 24an eta 25ean Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Nazioarteko V. Biltzarra egin zen, Bilboko Euskalduna Jauregian.</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Maiatzaren 30ean bosgarren tailerra egin zen, prebentzio-zerbitzuetako teknikariei zuzenduta: «Laneko indarkeriaren ikuspegi prebentiboa».</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Ekainaren 15ean eta 16an OSALANen Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko XIII. Uda Ikastaroa egin zen: «Lan-arriskuen prebentzioaren esparru juridikoa eta teknikoa eguneratzea».</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Irailaren 28an prebentzio-zerbitzuetako teknikarientzako seigarren tailerra egin zen: «Elektrizitatearekin lotutako arriskua».</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Urriaren 10ean beste tailer bat egin zen, prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileei zuzenduta: «Patologia kardiobaskularra eta lana: orokortasunak, errehabilitazioa eta jarduketak lan-eremuan».</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Azaroaren 23an OSALANek antolatutako Laneko Psikosoziologiari buruzko XIII. jardunaldiak egin ziren: «Laneko ziberjazarpena».</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Eta, azkenik, azaroaren 24an zazpigarren tailerra egin zen, prebentzio-zerbitzuetako teknikariei zuzenduta: «Laneko arriskuen prebentzioaren arloko erantzukizunak».</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Laneko arriskuen prebentzioari buruzko lineako ikastaroaren 4 edizioak, langile autonomoei zuzenduta.</li></ul>



- OSALANek prestakuntza ematen die prebentzioko ordezkariari, dirulaguntzen bitartez.

**16. taula:** Prebentzioaren arloko langile trebatuak. 2023. urtea.

Lurraldea	Prestakuntza normatiboa Prebentzio-ordezkari kopurua	Prestakuntza teknikoa Prebentzio-ordezkari kopurua	Gizonak	Emakumeak	Prebentzio-ordezkariak, guztira	Dirulaguntzaren zenbatekoa (€)
Araba	245	182	273	154	427	58.040,75
Bizkaia	392	327	492	227	719	98.032,44
Gipuzkoa	423	249	457	215	672	86.382,03
Guztira	1.060	758	1.207	594	1.818	242.455,22

- Laneko osasunaren arloan lan egiten duten osasun-langileentzako prestakuntza.

**17. taula:** Prebentzio-zerbitzuetako teknikarientzako prestakuntza-jarduerak. 2023. urtea.

Antolatutako tailerrak, guztira	Parte-hartzaileak, guztira	Emakumeak	Gizonak
3	821	% 58	% 42

- Laneko osasunaren arloan lan egiten duten osasun-langileentzako prestakuntza.

**18. taula:** Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza-jarduerak. 2023. urtea.

Antolatutako tailerrak, guztira	Parte-hartzaileak, guztira	Emakumeak	Gizonak
2	229	% 68	% 32

## 5. II. ARDATZA. GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE LANEKO...

- Osakidetzako osasun-langileei laneko osasunari buruzko prestakuntza emateko eta sustatzeko, hainbat gairi buruzko materiala prestatu da, prestakuntza-pilulak sortzeko. Pilulak OSALANen webgunean argitaratuko dira:

- Lanbide-asmaren gaineko pilula
- Bereziki sentikorrek diren langileen gaineko pilulak
- Haurdunaldiari eta lanari lotutako arriskuen gaineko pilula

Osakidetzako osasun-langileak prestatzeko ikastaro bat egin da, lanbide-gaixotasunaren susmoaren komunikazioa sustatzeko. Osakidetzaren prestakuntza-programaren bidez emango da.

- Euskadiko Lan Osasuneko Irakaskuntza Unitate Multiprofesionaleko barne medikuen prestakuntza (MIR R4) eta barne erizainen prestakuntza (EIR):

### 19. taula: Barne medikuen eta erizainen txandaketa, OSALANen. 2023. urtea.

Barne mediku egoiliar kopurua (MIR)	Barne erizain egoiliar kopurua (EIR)	Emakumeak	Gizonak
10	4	10	4

- UPV/EHurekin sinatu zen hitzarmenaren arabera, 2023an OSALANen, zehazki, Bizkaiko Laneko Osasuneko Unitatean, praktikak egin dituzte erizaintzako 2 ikasleek (emakume batek eta gizon batek).
- OSALANek, gainera, hitzarmen bat du UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatearekin, UPV/EHUko Laneko Osasunaren eta Segurutasunaren Masterra bultzatzeko, ez soilik finantzaketan, baita irakaskuntza-lanetan ere. Hala, masterreko 65 ikastordu ematen dituzte OSALANeko teknikariek, eta horietako 4 ikastordu laneko segurutasunaren eta osasunaren arloan genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoak dira.
- UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatearekin ere lan egiten du, master honetan: «Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterra: Berdintasun Agentek». OSALANeko teknikariek eta berdintasun-taldeko beste langile batzuek eman dituzte. 100 orduko praktikaldia egin da master horretako ikasle batekin.



## Ikerketa-proiektuak

OSALANek laneko arriskuen prebentzioan ikerketa eta berrikuntza sustatzen du, gizarte-, teknologia- eta ingurumen-aldaketei aurrea hartzeko, norberaren ikerketaren bidez edo ikerketara bideratutako dirulaguntzen bidez.

**20. taula:** 2023an diruz lagundutako ikerketa-proiektuak.

Erakundearen izena	Proiektua	Dirulaguntza
Osarten-Kooperatiba Elkartea	Prozesu onkologikoetatik bizirik atera diren pertsonak lanean hasteko zailtasunei buruzko azterlana, narriadura kognitiboan zentralizatua (langileentzako gidak, enpresentzako eta haien prebentzio-zerbitzuentzako balorazio-tresna).	25.000 €
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)	Ergonomia 5.0. Segurtasun jasangarria eta prebentiboa.	25.000 €

**21. taula:** SAF€RA deialdi europarraren eremuan diruz lagundu diren eta jarraipena izaten ari diren proiektuak.

Erakundearen izena	Proiektua	Dirulaguntza
Gaiker Fundazioa	Aplikazio energetikoetan erabiltzen diren 2D material aurreratuen bizi-ziklo segurua (Safe2energy).	25.000 €
BBD BioPhenix, S.L.	Safe -and sustainability-by-design- approaches for energy storage systems in Green and circular economy (SuESS).	12.500 €
PESI Plataforma Española de Seguridad Industrial	Segurtasunaren erronkak kudeaketa algoritmikoan eta lan duina egiteko irtenbideak Lan Plataforma Digmaletan.	12.500 €

## Gidak, protokoloak, gidalerroak eta gomendioak egitea

- Sektorre eta diziplina desberdinetan prebentzioko jarduerak egiteko gidak, protokoloak, jarraibideak eta gomendioak egin dira:
  - «Trenbide-azpiegiturak eraikitzean laneko arriskuak prebenitzeko gida»ren 2. zatia egiten ari da.
  - «Prebentzioko baliabidearen eskuliburua» eguneratzen jarraitu dugu, CANO proiektuan Kantauri Itsasoko Ertzeko Erkidegoen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundeekin lankidetzan.

## 10. HE. Informazio-sistema eta adierazle egokiak ezarri dira, datuen bilketa sistematikoa eta azterketa egiteko eta eragileei eta gizarteari horien berri emateko; horrela, osasunari lotutako prebentzioa eta babesa ezartzeko neurrien plangintza egin ahal izango da eta neurri horiek balioetsi ahal izango dira, betiere genero-ikuspegia eta beste gizarte-ezaugarri batzuk kontuan hartuz

---

Informazioaren arloan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren laneko segurtasunaren eta osasunaren egoera eta bilakaera ikuskatze aldera, OSALANek informazio-sistema hauek kudeatu ditu, Erakundeak berak garatuta:

- Laneko segurtasun eta osasuneko datuen informazio-sistema: Gutxieneko Datu Multzoa (GDM).
- Osasun Zerbitzuen eta Osasun Jardueren fitxategia, bai eta ikuskaritza-erakunde espezializatuen ere.
- Informazioaren eremu horretan bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko laneko ezbeharren eta gaixotasun profesionalaren 2022. urteko txostenak egin dira.
- Datu horien guztien tratamendua eta ustiapena ahalik eta eraginkorrena eta efektiboena izan dadin, eta, gainera, datu horien babesa ziurta dadin, 2023an OSALANek sistema informatikoetako aplikazioak hobetzeko lana egin du.



## 12. HE. **Gizarte-eragileekin elkarrizketa sendotu eta finkatu da, pertsonak oinarritzat hartzen dituen eta gizarte-ezaugarriak sartzen dituen laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa-eredua lortze aldera**

---

Haxe da OSALANen lehentasunezko beste lan-arlo bat: Autonomia Erkidegoaren eremuan lan-arriskuen prebentzioan inplikaturako eragileen elkarrizketa eta partaidetza sustatzea, eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutuaren mezuak herritarrei helaraztea, horiei prebentzioan lagundu eta inplikatuzeko tresnak eskaini bitartean.

OSALANek hiru aldeko topagune, gizarte-eragile eta administrazio izaten jarraitu du, bere Kontseilu Nagusiaren eta horren barruan sortutako batzordeen bidez. Esparru horretan zehazten dira erakundeak garatu beharreko politika eta ekintza nagusiak, eta horien gaineko jarraipena egiten da.

Era berean, OSALANen Kontseilu Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrizketa Sozialaren Mahaian adosten diren gomendioak jasotzen ditu.

Hiru aldeko topaguneaz gain, elkarrizketa eta lankidetzak estu eta iraunkorra ezartzen da, ez soilik gizarte-eragileekin, baizik eta baita prebentzioko ordezkariekin, prebentzioko erakunde espezializatuekin eta prebentzioko elkarrekin ere, ekimenak, proiektuak eta estrategiak garatzeko interes partekatuko arloak identifikatze aldera.